

IRAKURKETA ERRAZAREN GIDA



Irakurketa
Erraza

CHIHARU SHIOTA

*My House
is your House*

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Euskadi Irakurketa Erraza elkartearekin lankidetzan, Irakurketa Errazaren Gida argitaratzen du erakusketa bakoitzarekin batera.

Edukiak hizkuntza erraz eta argian idatzita daude, eta berariaz diseinatuta irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat.

TITULUA: Nire etxea zurea ere bada

ARTISTA: Chiharu Shiota

TOKIA: Azkuna Zentroa (Erakusketa Aretoa)

EGUNAK: 2025eko maiatzaren 27etik irailaren 28ra arte

ARTISTA

Chiharu Shiota artista japoniarra da.

Osakan jaio zen 1972an eta Berlinen bizi da.

Japonian eta Berlinen trebatu zen

pinturan eta arte bisualetan.

Munduko arte garaikideko

artistarik garrantzitsuenetako bat da.

Bere lanak **diziplina anitzeko** arte-mota bat dira,
eta munduko museo eta kultura-zentrorik garrantzitsuetan
egon dira ikusgai, hala New Yorken eta Parisen,
nola Erresuma Batuan eta Australian.

Diziplina anitzekoa: Lanak
sortzerakoan hainbat
baliabide erabiltzen dituena,
hala nola argazkiak,
pinturak, bideoak, etab.

Nazioarteko erakusketa askotan

ere parte hartu du,

esaterako, Veneziako Bienalaren 56. edizioan,

Japonia ordezkatzuz.

KOMISARIOA

Tereza de Arruda da erakusketaren **komisarioa**.

Sao Paulon jaio zen, Brasilen, 1965ean.

Artearen historialaria da, eta komisarioa Europan,

Hego Amerikan, Estatu Batuetan eta Asian,

Ilya eta Emilia Kabakov, Sigmar Polke,

Yang Shaobin, Wang Chengyun

eta beste artista garrantzitsu batzuen erakusketetan.

Komisarioa: Erakusketa
bateko lanak aukeratzeaz
arduratzeko pertsona
da, gaian aditua izanda,
erakusgai dagoenari buruzko
diskurtso teorikoa egiten du.

ERAKUSKETA: Chiaru Shiotaren artea

Chiaru Shiotak Euskadin izango duen
lehen erakusketa monografikoa da hau.
Artista ezaguna da artilezko hariekin
ehundutako instalazio handiak egiteagatik.

Denbora, mugimendua,
ametsak eta memoria dira bere obretan
agertzen diren gai nagusiak.

Bere artelanen ideiak
eguneroko bizitzako elementuak dituzte abiaburu:
oroitzapenak, emozio edo esperientzia pertsonalak
eta aurkitzen dituen edo jada erabiltzen ez diren objektuak.

Obren protagonistak, batzuetan,
jantziak, altzariak eta objektuak dira,
etxeaz, migrazioaz, bizitzaz eta heriotzaz
hitz egiteko erabiltzen baititu.

Chiharu Shiotak erabiltzen duen lengoaia
artistikoa unibertsala da,
pertsona guztiei zuzenduta dago.
Ez dio axola hizkuntza, nazionalitatea,
erlijioa edo kultura.

Kolore gorria funtsezkoa da bere lanetan.
Zuriarekin batera agertzen da
Japoniako bandera, baina, horrez gain,
kultura japoniarrean gorria bizitza,
energia eta eguzkiaren sinboloa da.
Artistak odolarekin lotzen du, bizitzarekin.

ERAKUSKETA: “Nire etxea zurea ere bada”

Azkuna Zentroarekin lankidetzan (AZ)

Chiharu Shiotak AZko taldearekin lan egin du,
bere obra Bilboko Alhóndigako
arkitekturarekin “hizketan” jartzeko.

Ibilbideak Azkuna Zentroko
2 espazio lotuko ditu:
Ataria eta Erakusketa Aretoa.

Haietan ikusgai egongo dira bere lehen lanak,
1990eko hamarkadakoak eta gaur egungoak ere bai.

“Nire etxea zurea ere bada” erakusketak
publikoa gonbidatzen du
Shiotaren munduan esperientzia **murgiltzaile** bat bizitzera.

Murgiltzailea: ikusleak
errealitate birtual bat bizi
dezake, benetakoa, erreala
balitz bezala.

Erakusketak etxeko giro desberdinak
erakusten ditu, pertsona bakoitza
bere oroitzapenekin lotu nahian,
eguneroko bizitzako elementuetatik abiatuta.

Zer ikusiko dugu espazio bakoitzean?

Atarian:

Soineko gorri handiak,
gorputza eta azala hizpide dituztenak.
Soinekoa babesten gaituen larru hori da,
bertan ezkutatzen gara.
Etxearen beraren **metafora** bat da,
gure espaziorik intimo eta pertsonalena baita.

Metafora: hitz edo esaldi
bat erabiltzea beste zerbaiti
erreferentzia egiteko, horren
antza duelako edo erlazioren
bat duelako.

Erakusketa Aretoan:

Hariz ehundutako instalazioak.

Hariek hasiera eta amaiera
argirik ez duten bideak, istorioak
eta esperientziak irudikatzen dituzte.

Arropak, zintzilikatutako leihoak eta bestelako objektuek
oraingoak diren eta ez dauden gauzak irudikatzen dituzte,
esaterako, bizitza bera eta oroimena.

Shiotak instalazio bat sortu du
bereziki Azkuna Zentroarentzat,
eta publikoak aukera du bertan parte hartzeko,
gutun eta marrazkien bidez.

Artelan horrek erakusten du
pertsona bakoitzaren istorioak
historia kolektibo zabalago baten parte direla.

